

**ANTOLAKETA TXOSTENA**

<b>Dokumentua:</b>	IO-2014-034
<b>Izena:</b>	Euskal Autonomia Erkidegoko Portuen eta Itsas-garraioaren Lege Aurreproiektua

**Egilea:**

Sinadura: J.I. Osaba Urrutia

Proiektuen arduraduna

Data: 2014-10-27

**Onartua:**

Sinadura: Javier Bikandi Irazabal

Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa  
Berritzeko eta Hobetzeko zuzendaria

Data: 2014-10-27

<b>ANTOLAKETA TXOSTENA</b>	
<b>Dokumentua:</b> IO-2014-034	<b>Orrialdea:</b> 2/6

**Proposamena:**

Ingurumen eta Lurralde Politika Saileko Zerbitzu Zuzendaritzak Euskal Autonomia Erkidegoko Portuen eta Itsas-garraioaren Lege Aurreproiektuaren txostena eskatu zuen (2014ko urriko bertsioa), transmisio telematikoz. Transmisio hori 2014ko urriaren 17an sartu zen Herritarrentzako Arreta eta Administrazioaren Berrikuntza eta Hobekuntzako Zuzendaritzan.

Lege-aurreproiektuaren xedea hau da:

- EAEn eskumenekoak diren portuei eta portu- eta itsas-instalazioei aplikatu behar zaien araubide juridikoa ezartzea.
- Portuen plangintza-, antolamendu-, ustiaketa-, eraikuntza-, zabalkuntza-, erreforma- eta mantentze-araubidea ezartzea, bai eta portuetako zerbitzuak ematekoa eta portuetara sartu eta horiek erabiltzekoa ere.
- EAEn eskumeneko portuetako jabari publikoaren kudeaketa arautzea eta haren Erabilera Araubidea ezartzea.
- KAIKAK sortzea: erakunde publikoa izango da, Euskal Autonomia Erkidegoko Portuak Kudeatzeaz arduratuko da eta EAEnko Portu Administrazioari kide izango da.
- Portuetako jabari publikoa erabiltzearen eta portu-zerbitzuak ematearen ondoriozko Araubide Ekonomiko Finantzarioa arautzea.
- EAEn eskumeneko Bidaiarien Itsas-garraioaren, Salgaien Itsas-garraioaren eta Itsas-garraio Mistoaren Jarduera arautzea.
- Autonomiako Portuen Jabari Publikoaren zehapen-araubidea ezartzea eta EAEnko Portu Administrazioari dagozkion zaintze-, ikuskatze- eta kontrol-ahalak ezartzea.

Legeak zati hauek ditu:

- Azalpen-zatia.
- Xedapen zati bat: 54 artikulua daude, 6 kapitulutan sartuta (1. Xedapen Orokorrak-2. Portuen Plangintza, Antolamendua, Eraikuntza eta Mantentzea-3. KAIKAK erakunde publikoa-4. Euskal Autonomia Erkidegoko Portuen Araubide Juridikoa-5. Itsas Garraioko Enpresa Operadoreen Erregistroa-6. Polizia eta Zehapen Araubidea).
- Azken zatia: 4 xedapen gehigarri, 5 xedapen iragankor (justifikazio-memorian eta zioen azalpenean 4 direla esaten da), xedapen indargabetzaile 1 eta 3 azken xedapen.

<b>ANTOLAKETA TXOSTENA</b>	
<b>Dokumentua:</b> IO-2014-034	<b>Orrialdea:</b> 3/6

**Balioespena:**

Txostenaren arrazoi den lege-aurreproiektua aztertu ondoren, hau adierazi behar da:

- A) Egiturari eta antolamenduari buruzko alderdiei dagokienez, interesgarria da hau aipatzea:
- III. kapitulua, KAIK erakunde publikoari buruzkoa (19. artikulutik 26. artikulura bitarte): zuzenbide pribatuko erakunde publiko gisa eratzen da, nortasun juridiko propioa du eta jarduteko gaitasun osoa du bere helburuak betetzeko; portuen arloan eskudun den sailari atxikita dago; eta, antolamenduari dagokionez, zuzendaritza bat izango du kudeaketa-organo gisa, eta, lanpostuetan, kontratatutako langileak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko funtzionarioak arituko dira.
  - 2. xedapen gehigarria: EAEko Administrazio Orokorrean edo Euskadiko Kirol Portua SAn lanean dabiltzan lan-kontratuko langileak, lege honen arabera KAIKek hartuko dituen funtzioak betetzen dituztenak, erakunde horretan sartuko dira, bai eta EAEko Administrazio Orokorrean diharduten funtzionarioak ere. Halaber, Gobernu Kontseiluaren dekretuz, Administrazio Orokorreko sailtako egitura organikoak egokitzea onartuko da: KAIK erakundeari behar diren langileak izendatzeko komenigarri direnak egokituko dira, hain zuzen ere.

Horri dagokionez, kontuan hartu eta ziurtatu egin behar da, aldeztatik, Euskal Administrazio Publikoaren Legean aurreikusitakoa betetzea (2014ko irailaren 16an Gobernu Kontseiluak onartutako Legea); zehazki, honako hauetan jasotakoa:

- II. TITULUA- EAEko Sektore Publikoaren osaera eta koherentzia.
  - o Lehen kapitulua-Sailkapena eta printzipioak.
    - 33. artikulua.- Tipologia; *besteak beste, zuzenbide pribatuko erakunde publikoak hartzen ditu.*
    - 34. artikulua.- Jarduteko printzipio orokorrak, Sektore Publikoaren Subjektu diren aldetik: *Zerbitzu emateari, Legezketasunari eta Koherentziari buruzko printzipioak.*
    - 35. artikulua-Erakunde berriak sortzeko eta sortuta dauden beste batzuetan parte hartzeko printzipioak.
      - 1.- *Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoa osatzen duten subjektuek printzipio espezifiko hauek bete beharko dituzte:*

**ANTOLAKETA TXOSTENA**

**Dokumentua:** IO-2014-034

**Orrialdea:** 4/6

a) *Administrazioaren nortasun juridikoaren batasunari lehentasuna emateko printzipioa. Horren arabera, kasu honetan baino ez dira sortuko nortasun juridiko propioa duten erakundeak: Administrazio Orokorreko organo eta administrazio-zerbitzuen bidez ezin denean lortu bete beharreko interes orokorra edo eman beharreko zerbitzua.*

b) *Subsidiarotasun-printzipioa. Horren arabera, zuzenbide pribatuaren mendeko erakundeak kasu honetan baino ez dira eratuko: ekimen pribatuak ez duenean behar bezala bermatzen zerbitzu edo prestazio jakin batera iristeko bidea.*

2.- *Administrazio Orokorrek eta Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoa osatzen duten erakundeek kasu hauetan baino ez dituzte sortuko erakundeak edo kasu hauetan baino ez dute parte hartuko lehendik dauden beste erakunde batzuetan: interes orokorra ezin denean efikaziaz eta efizientziaz bete Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoak une horretan dituen giza-baliabideekin, baliabide materialekin eta antolamendu-baliabideekin.*

3.- *Baliabideak berrantolatu beharko dira, baldin eta erakundeak sortzean, erakunde horiei orain arte Administraziooko beste organo batzuek edo sektore publikoko erakundeek betetzen zituen funtzioak esleitzen bazaizkie; horrelakorik gertatuz gero, murriztu, kendu edo transferitu egingo dira dagozkion funtzioetan edo eskumenetan baliatzen ziren baliabideak.*

4.- *Sortzen diren erakundeek, bestalde, beren jarduerarako eta funtzioetarako egokiena den forma juridikoa hartuko dute, lege honetan erakunde bakoitzarentzat arautzen diren irizpideen arabera.*

○ Bigarren kapitulua-Araubide Juridikoa eta Eraketa.

▪ 36. artikulua-Erakundeak eratzeko prozedura orokorra:

1.- *Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraz besteko erakundeak eratzeko, Eusko Legebiltzarraren lege bat edo Eusko Jaurlaritzaren dekretu bat onartu beharko da, hurrengo artikuluetan erakunde-mota bakoitzerako ezartzen denaren arabera. Dekretu horrek, bestalde, baterako izapidetzea behar du, hau da, Administrazio Orokorrean ogasun-gaien eskumenak dituen sailak eta erakundearentzat aurreikusten den Administrazio Orokorreko atxikipen-sailak batera izapidetu beharko dute kasu bakoitzean.*

**ANTOLAKETA TXOSTENA**

**Dokumentua:** IO-2014-034

**Orrialdea:** 5/6

2.- *Lege-proiektua edo dekretu-proiektua izapidetzeko prozeduran, nahitaez egiaztatu beharko dira honako hauek:*

a) *Beharrezkoa dela beste erakunde bat eratzea lortu nahi diren helburu publikoak lortzeko.*

b) *Erakunde berri hori nola egokitzen den Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publiko osoaren antolamendu instituzionalaren ikuspegitik. Bermatu egin beharko da ez dela errepikatzen organorik edo funtziorik, eta, hala badagokio, zer neurri hartzen den lehendik dauden erakundeak berregituratu edo desegiteko.*

c) *Lege honetan pertsonifikazio juridikorako ezartzen diren tipologiaen artean aukeratu dena egokia dela erakunde berriak bete behar dituen funtzioetarako edo jarduerarako, eta bat datorrela lege honek forma bakoitzerako ezartzen dituen printzipioekin.*

d) *Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak zer prozedura eta teknika erabiliko dituen erakunde berria kontrolatzeko.*

- 38. artikulua.- Zuzenbide pribatuko erakunde publikoak.
- 39. artikulua.- Administrazio Institutuzionalaren menpeko erakundeak eratzea.

B) *Prozedura-alderdiei dagokienez, interesgarria da hau aipatzea:*

- 13.1 artikulua: Portuko Espazioak eta Erabilerak Mugatzearen Tramitazioa.
- 14., 15. eta 16. artikulua: portuak eraiki, zabaldu, erreformatu eta mantentzea.
- 18. artikulua: dragatze-baimenak.
- 21.e artikulua: KAIK erakundeak administrazio- emakidak eta -baimenak ematea.
- 21.h artikulua: KAIK erakundeak txostena egitea, portu-eremuei eragiten dieten hirigintza antolamenduko edo lurralde-antolamenduko tresnei buruz.
- 21.j artikulua: KAIK erakundeak diru-laguntzak ematea.
- 33., 34., 35., 36. eta 37. artikulua: herri-jabariaren gaineko baimenak eta emakidak; horiek tramitatzea, amaitzea, errebokatzea eta iraungitzea.
- 38., 39. eta 40. artikulua: emakidak xedatzeko egintzak edo kargak ezartzen dituzten egintzak, emakidak aldatzea eta berrikustea, eta emakidak erreskatatzea, hurrenez hurren.
- 41. artikulua: baimenak.
- 42. artikulua: Itsas Garraioko Enpresa Operadoreen Erregistroa, erregistroaren sorrera eta enpresak erregistroan inskribatzeko derrigortasuna.

**ANTOLAKETA TXOSTENA**

**Dokumentua:** IO-2014-034

**Orrialdea:** 6/6

Beraz, prozedura-alderdien gainean aipatutakoa kontuan hartuta, eskuartean dugun lege-aurreproiektuaren testuan ez denez ezer aipatzen testuan jasotzen diren administrazio-prozedurak elektronikoki tramitatzeko aukerari buruz, esan behar da nahitaezkoa dela gogoraraztea gai hori kontuan hartu beharrekoa dela ondoren egiten diren garapen-xedapenetan.

Ondorioz, prozedura-alderdiei dagokienez, hau esan behar da: Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzak Ingurumen eta Lurralde Politika Sailari eta KAIK erakundeari behar beste aholku eta informazio emango die lege-aurreproiektu horretan aipatutako prozeduren tramitazio elektronikoa arautzeko, antolatzeko eta ezartzeko (ondorengo garapen-araudian zehatzago azalduko dira) eta administrazio-kargak murrizteko.

**Ondorioak:**

---

Ondorioz, Herri Administrazio eta Justizia Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen apirilaren 9ko 188/2013 Dekretuaren 18. artikulua bitartez esleitutako eginkizunen arabera, Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzak, antolamendu- eta prozedura-diseinuari dagokionez, ohar horiek egin ditu Euskal Autonomia Erkidegoko Portuen eta Itsas-garraioaren Lege Aurreproiektuaren gainean (2014ko urriko bertsioa).